2019an, Cámarabilbao-k arreta eta orientazioa eman zien 86 gazteri, ikastaro hauek antolatuz:

- Oinarrizko alemana (50 ordu)
- Erdi-mailako ingelesa (50 ordu). Bi ikastaro.
- Gaitasun digitalak (50 ordu). Bi ikastaro.
- Enplegagarritasuna (15 ordu). Lau ikastaro.
- Enplegurako Oinarrizko Gaitasunak (60 ordu)
- Marketin Digitala (90 ordu)
- Kontabilitatea, finantzak, nominak eta Gizarte Segurantza (90 ordu)
- Logistikaren kudeaketako gaitasun teknikoak (150 ordu). Hiru ikastaro.

Programa honi atxikitako enpresek aukera izango dute gazteak kontratatzeko, dela praktiken bidez dela lan-kontratu bat eginez, eta eskuragarri izango dituzte horretarako beraizik plazaratutako laguntzak.



# GISLUR

GISLUR Bizkaiko Jarduera Ekonomikoko Guneen informazio-sistema bat da, geoatari bat (www.gislur.com), ekoizpen-jarduerak finkatzeko lurzoru, nabe eta lokalen erabilgarritasuna ezagutzeko.

## Jarduerak

- Jarduera ekonomikoetarako espazioen ezagutza hobetzea. 2019an, landa-lan bat egin zen 8.000 enpresako errolda bat osatzeko.
- Lankidetza publiko-pribatua sustatzea eskualde mailako garapenean. Web orrian eremu pribatu bat prestatu zen erakunde kolaboratzaileen informazioa kudeatzeko: 17 erabiltzaileren profila zabaldu da beren interes-eremuetan.
- Gislur Ekosistemako -espazio komun bateko- kide izatearen sentimendua sustatzea inplikatutako agenteen artean.
- Ezarpen bat aukeratzeko prozesua optimizatzea Behatokiaren bitartez, non aukera baitago txosten sozioekonomikoak eta enpresarialak kontsultatzeko.

@Gislur






instagram.com/berriz_enpresa
facebook.com/berrizenpresa
twitter.com/berrizenpresa

# Berriz Enpresa

2019an, enpresen transmisioan laguntzea eta enplegua mantentzea helburu duen Berriz Enpresa Programak Bizkaiko 16 negozioren transmisio-prozesuan lagundu zuen, eta guztira saltzaileentzako 83 egokitasun-analisi egin ziren. Horietatik, 49 negozio bakarrik sartu ziren programan.

Zehazki, transmisioen % 75 saltokiak izan ziren, eta % 25 ostalaritzako establezimenduak.

Transmititutako negozioen jarduerak askotarikoak dira: elikadura freskoa saltzen duten 8 establezimendu, elikadura konbinatuko 2 saltoki, moda saltoki bat, kosmetikako saltoki bat, taberna bat, jatetxe bat, pub bat eta kafetegi bat.

Transmisioa egin duten pertsonen profila: % 61 emakumeak eta % 39 gizonak.




Transmisioa egiteko arrazoi garrantzitsuenak izan dira jabeen erretiroa (% 41) eta motibo pertsonalak (beste %41). Era berean, aipatzekoa da % 55 alokairuan hartutako lokalak izan direla eta % 45 lokal propioak; zailagoa da jabetzako lokal bat duen negozioa saltzea, prezioa igo egiten delako.

Bestalde, balizko erosleen egokitasun-analisiak egin zitzaizkien 120 ekintzaileri. Horien artetik % 66ri merkataritza sektorea interesatu zitzaien, eta gainerakoei ostalaritza eta turismoa.

Ekintzaileen % 54 prest zegoen negozioan gehienez 20.000 € inbertitzeko eta % 28, berriz, 20.000 € eta 50.000 € bitartean.

Hauxe izan zen martxan dauden negozioetan sartzeko interesa agertu zuten pertsonen adina: % 45ek 40 eta 50 urte bitartean zituzten, % 25ek 30 eta 40 urte bitartean, % 16k 30 urte baino gutxiago, eta % 14k 50 urte baino gehiago.



# Enpresa Leihatila

Leihatila Empresarial de Cámarabilbao Ekimen horren helburua ekintzaileei enpresa berriak sortzen laguntzea da, enpresa-izapide eta -aholkularitzako zerbitzu integratuak emanez.

2019an, Cámarabilbao Enpresa Leihatilak 366 pertsona atenditu zituen. % 50,27 (184) gizonak izan ziren, eta % 49,73 (182) emakumeak.

Guztira, 152 enpresa sortu ziren, % 90,79 enpresa-jarduerak garatzen dituztenak eta % 9,21 jarduera profesionalak garatzen dituztenak.

Jarduera-sektoreak: 19 txikizkako saltoki, 19 profesional, enpresentzako zerbitzuak ematen dituzten 30 ekimen, industriarako zerbitzuak ematen dituzten 15 ekimen, profesionalentzako zerbitzuak ematen dituzten 15 ekimen, ostalaritzako 9 ekimen, bitartekaritzako 6 ekimen eta askotariko jardueretako 39 ekimen.

Atenditutako ekintzaileen % 43,44k (159) 45 urte edo gehiago zeuzkaten, % 41,26k (151) 31 eta 44 urte bitartean, eta % 14,28k 30 urte edo gutxiago.

Laneko egoerari dagokionez, % 46,17 (169) langabezian zeuden duela urtebete baino gutxiagotik, eta aholkularitza behar zuten enpresa berriak sortzeko. % 34,15ek (125) norbere konturako negozio bat zuten, eta aholkularitza behar zuten proiektu berrientzat. % 11,75 (43) besteren konturako langileak ziren, eta % 7,93k (29) langabezian zeramaten urtebete baino gehiago.












# PAEM

Emakumeei Enpresa Laguntzeko Programak (PAEM) ideia edo negozio-proiektu bat duten eta enpresa modernizatzeko edo handitzeko plan bat sustatzen duten emakumeen ekintzailetza- eta enpresa-jarduera sustatzen eta babesten du.




2019an, Ganberak 131 emakume atenditu ditu PAEM - Emakumeei zuzendutako Enpresa-laguntzarako Programaren esparruan.

Hauek izan ziren emakume erabiltzaileen adinak: % 86,26 (113) 25 eta 54 urte bitartekoak, % 10,69 (14) 54 urtetik gorakoak, eta % 3,05 (4) 25 urtetik beherakoak.




% 34,35ek (45) sei hilabete baino gutxiago zeramaten langabezian, % 21,14 (29) norbere konturako langileak ziren eta % 16,03 (21) besteren konturako langileak. Bestalde, % 74k (18) 6 eta 12 hilabete bitartean zeramaten langabezian, eta % 13,74k (18) 12 hilabete baino gehiago.

Prestakuntza-maila: % 44,27 (58) lizentziatuak edo unibertsitateko graduatuak ziren, % 12,98k (17) erdi-mailako prestakuntza ziklo bat zuten, eta % 9,92k (13) batxilergoko titulua. % 8,4k (11) goi-mailako prestakuntza-ziklo bat zuten, eta % 8,4k (11) diplomatura bat, % 5,35ek (7) unibertsitateko gradu-ondoko bat, eta % 5,35ek (7) oinarrizko lanbide heziketa. Gainerakoak ez ziren iristen prestakuntza-maila horietara.




Sortutako 48 enpresen jarduera-sektoreak: profesional anitzentzako zerbitzuak (15), txikizkako saltokiak (7), enpresentzako zerbitzuak (7), zerbitzu pertsonalak (5), higiezinak (4), jarduera industrialak (2), garraio-jarduerak (2), jatetxeak (2) eta bestelakoak (4).

Forma juridikoa: 28 bakarkako enpresari, 18 sozietate mugatu eta 2 ondasun-komunitate.

# Emprende

España Emprende programaren helburua da prestakuntza eta orientazio pertsonalizatua eskaintzea enpresa-jarduera errazteko, bai eta ekintzaileei laguntzea ere enpresa eratzeko fase guztietan.

**249 aholkuraritza**

2019an, 249 aholkularitza-saio eskaini zitzaien ESPAÑA EMPRENDE kabinetea erabili zuten 243 pertsonari.

Ekintzaileen artean, % 68k izapideei buruzko aholkularitza jaso zuten, % 61ek kontsulta orokorrak egin zituzten, eta % 52k laguntza eta dirulaguntzei buruz galdetu zuten.

Enpresarien artean, gehienek informazio orokorra eskatu zuten (% 92), beste batzuek izapideei buruzko aholkularitza (%54), eta gainerakoek laguntza eta dirulaguntzei buruzko informazioa (% 37).

EMPRENDE kabinetearen erabiltzaileen % 85,18 25 eta 54 urte bitartekoak ziren (207), %12,76 54 urtetik gorakoak (31) eta % 2,06 25 urtetik beherakoak (5).

**243 pertsona**




**ENPRESA BURUAK**




**Adinak**






**ESPAÑA EMPRENDE Bilbao** programan parte hartu zuten erabiltzaileen % 39,51k (96) sei hilabete baino gutxiago zeramaten langabezian, % 38,68 (94) norbere konturako langileak ziren, eta % 12,35 (30), besteren konturako langileak. Erabiltzaileen % 5,34k (13) 12 hilabete baino gehiago zeramatzaten langabezian, eta % 4,12k (10) sei hilabete baino gutxiago.

Bestalde, erabiltzaileen % 33,33 (81) lizentziatuak ziren, % 19,75ek (48)batxilergoko titulua zuten, % 8,64k (21) lanbide heziketako goi-mailako gradua, eta % 7,82k (19) oinarrizko lanbide heziketa edo diplomatura. Horiez gain, % 7,01ek lehen hezkuntzako titulua zuten (17), % 5,76k erdi-mailako lanbide heziketa (14), % 5,35ek DBHko titulua (13), % 3,29k unibertsitateko gradu-ondokoa (8), eta % 1,73k bestelako ikasketak (3).

Guztira, 92 enpresa sortu ziren. Sektoreka: txikizkako 14 saltoki, industria arloko 14 enpresa eta eraikuntzako beste 14. Enpresei zerbitzuak emateko 12 proiektu, 6 jatetxe, higiezinen sektoreko 4 proiektu, 4 handizkari eta 4 garraio-enpresa.






# merkataritza

Txikizkako merkataritza Bizkaiko ekonomian pisu handiena duen jardueretako bat da, eta enpresaburu, profesional autonomo eta langile asko hartzen ditu.

## JARDUERAK

Joerak aztertzeko misioa Kopenhagera (Danimarka), ekainaren 24tik 27ra, moda, osagarri eta etxeko produktuen sektoreetako txikizkako saltokiekin.

Joerak aztertzeko misioa Düsseldorf eta Koloniara (Alemania), abenduaren 1etik 4ra, elikadura eta edarien sektoreetako txikizkako saltokiekin.

Euskadiko Merkatari Elkarteen eta Federazioen Errolda egitea (79 erakunde erroldatu dira).

Txikizkako merkataritzaren lehiakortasunari laguntzeko Plan Integrala: 10 prestakuntza-tailer eta 252 parte-hartzaile. Horrezaz gain, baita ere Berrikuntza Komertzialeko 57 diagnostiko.

Euskadiko Merkataritzaren Behatokiaren kudeaketa, Euskal Merkataritzaren Egitura eta Abaguneari buruzko txostenak, eta Berrikuntza eta Joera Fitxak.

Euscommerce programaren barruan, aholkularitza eman zitzaien 106 establezimenduri; horietatik 92 zeuden hasiera eta hazkunde fasean, eta 14 fase aurreratuan.

Martxan jarri zen Retail Euskal Eskola, non prestakuntza-premien 180 diagnostiko egin zitzaizkien beste hainbeste saltokiri beren ahuluneak ezagutzeko, eta deialdia egin zen bezeroaren eremuari buruzko 2 Expert Talks saio egiteko.

**PROGRAMA eusCommerce**

- **106** Hastapen eta hazkunde fasea
- **92** Hastapen- eta hazkunde-fasea
- **14** Aurreratuak

**RETAIL EUSKAL ESKOLA**

- **180** Prestakuntza beharrak
- **2** Expert talks

# ENPRESENTZAKO ZERBITZUAK 06.

## Docuexport, Esportatzeko Dokumentazioa

**2019ko azarotik hona, Cámarabilbao-k aukera ematen die Bizkaiko esportatzaile guztiei jatorri-ziurtagiriak formatu digitalean sortzeko. Nazioarteko salerosketa-prozesuak digitalizatzen ari dira, gero eta gehiago direlako esportazio- eta inportazio-tramiteak azkartu eta merkatu nahi dituzten operatzaileak.**

**Cámarabilbao-ren DOCUEXPORT-Esportazioetarako dokumentazio-zerbitzuak 10.000tik gora dokumentu kudeatzen ditu urtero, beharrezkoak direnak EBtik kanpora bideratutako Bizkaiko esportazioetarako.**

egindako dokumentuak 2019an

7.861
Merkatu-gaien 7.861 jatorri-ziurtagiri

2.533
legeztatze

121
ATA koaderno

# Subcontex Bilbao/ Azpikontratazio Poltsa

SUBCONTEX Merkataritza Ganberek sortutako sare bat da, azpikontratazio industrialeko enpresei laguntzea helburu duena. Eta, hain zuzen, azpikontratazio industrialeko enpresei laguntzeko garatzen ditu B2B ekintzak (azokak eta enpresa-topaketak), sustapen-ekintzak eta enpresentzat fabrikazio-aukerak atzemateko ekintzak.

Bilboko Azpikontratazio azoka / 2019-6-4




Speakers Corner - Azpikontratazio azoka / 2019-6-4



## Bizkaiko Enpresa Azpikontratisten Katalogo Berria

2019ko edizioan | **197** ENPRESARI | buruzko informazio teknikoa bildu da




## Azokak

Subcontex Estatuko zein Europako hainbat sektoretako (aeroespaziala, burdinbideak, automozioa, medikuntza, e.a.) 23 azokatara joan da. Guztira, Bizkaiko 23 enpresak parte hartu dute, aipatzekoa delarik MetalMadrid azokan eta Bilboko Azpi-kontratazio azokan izan direla.

### Beste topaketa batzuk




## Fabrikazio Aukerak

2019an Subcontex sareak

**261**

ESTATUKO ZEIN NAZIOARTEKO 261 FABRIKAZIO-AUKERA LORTU ZITUEN, BATIK BAT FRANTZIAN ETA ALEMANIAN.

# Enpresa Topaketak

**41**
ENPRESAK




dituzte Estatuko zein atzerriko balizko bezeroekin, ekitaldi hauetan

- Meetind (Donostia)
- Azpi-kontratazio Azokako erosleen topaketa (Bilbo)
- Industry erosle topaketa (Bartzelona)
- Erosle topaketa (Lyon)

# Enpresen Lehiakortasuna / Neurrira Eginiko Zerbitzuak

Cámarabilbao-k neurrira eginiko zerbitzuak garatzen ditu Bizkaiko enpresen lehiakortasuna hobetzeko, arlo hauetan:

- Kanal komertzial digitalaren garapena: aukera komertzialak atzematea ekosistema digitalen bitartez.
- Famili enpresentzako zerbitzuak: familiako protokoloak, enpresen ondare berregituraketak, e.a.
- Neurrira eginiko nazioarteko zerbitzuak: nazioarteko kontratuak, nazioarteko operazio konplexuen plangintza, esportazio-saila kanporatzea, e.a.
- Adimen lehiakorreko zerbitzuak.



# MARKETINA ETA ADIMEN LEHIAKORRA
# 07.



# camarabilbao.com webgunea

**149.741**

Bisita guztira 2019

| | | |
|---|---|---|
| URTARRILA | 14.011 | 480 |
| OTSAILA | 13.204 | 221 |
| MARTXOA | 13.705 | 210 |
| APIRILA | 11.823 | 233 |
| MAIATZA | 15.713 | 843 |
| EKAINA | 15.373 | 371 |
| UZTAILA | 8.799 | 179 |
| ABUZTUA | 6.658 | 13 |
| IRAILA | 12.389 | 78 |
| URRIA | 14.867 | 306 |
| AZAROA | 13.108 | 262 |
| ABENDUA | 10.091 | 3833 |

facebook.com/camarabilbao

twitter.com/camarabilbao

linkedin.com/organizacion-quest/company
/c-mara-de-comercio-de-bilbao

camarabilbao.com



## cubs.com webgunea

# 24.440

Bisita guztira 2019

www.camarabilbaoubs.com/cubs/portal.portal.action




| URTARRILA | OTSAILA | MARTXOA | APIRILA | MAIATZA | EKAINA | UZTAILA | ABUZTUA | IRAILA | URRIA | AZAROA | ABENDUA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2.357 | 2.427 | 2.178 | 1.715 | 1.770 | 2.402 | 3.646 | 795 | 1.685 | 1.638 | 1.840 | 1.987 |

instagram.com/camarabilbaoubs

facebook.com/camarabilbaouniversitybusiness

youtube.com/channel/ UCKJjPAt68efh4WflxjxVH5g

## Buletin elektronikoa

**37** buletin

**5.803** hartzaile

# ARLO KORPORATIBOA 08.

## Arbitraje Gortea

**2019an Cámarabilbaoren Arbitraje Gorteak arbitraje-laudoen hamar proiektu aztertu zituen, eta 13 eskaera berriren tramitazioa onartu zuen. Prozedura horiek administratzeko, Arbitraje Batzorde Iraunkorrak sei saio egin zituen.**

**Prozedura guztietan arbitro bakar batek parte hartu zuen, denak ere legelariak eta Batzorde Iraunkorrak izendatuak, horietatik % 54 emakumeak, eta ez zen aurkeztu errekusaziorik.**



Arbitraje-laudoei dagokienez, 2019an hamar laudo eman ziren eta horietatik erdia ekitatezko laudoak izan ziren. Gainera, sei prozeduratan arbitroek eskatu zuten laudoa emateko epea luzatzea.

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak ez zien oniritzia eman laudoak deuseztatzeko aurkeztutako ekintzei.

Arbitraje Gortearen Kontseilu Gorenaren ekainaren 13ko saioan, besteak beste, Batzorde Iraunkorreko kideak berritu ziren, abokatuen eta notarioen elkargo profesionalek proposatutako kideekin: Vicente del Arenal Otero, Euskal Herriko Notarioen Elkargoko Batzordearen izenean; eta Cristina Górgolas Medel, Ramón Lasagabaster Tobalina eta Antonio Tena Núñez Bizkaiko Abokatutza Elkargoko Gobernu Batzordearen izenean.



Arbitraje Gortearen Kontseilu Gorena / 2019-6-13



# Famili Enpresa

2019an 720 parte-hartzaile bildu zituzten 17 jarduera egin ziren jardunaldi, tailer eta konferentzia formatuetan, eta jarduera horiek UPV/EHUko Famili Enpresaren Katedraren, CEBECen, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Cámarabilbao-ren arteko lankidetza akordioaren esparruan kokatzen dira.

**“Profesionalizazioa, funtsezko faktorea jarraipenerako”** zikloan hizpide hartu ziren famili enpresaren gobernu ona, erabakiak hartzeko prozesuak, ondorengotzaren plangintza eta, besteak beste, famili enpresetan eragina duten zerga arloko kontuak. Era berean, xeheki landu ziren beste gai batzuk ere, esaterako, nola indartu komunikazioa, nola hobetu enpresako profesionalizazioa edo nola interpretatu errazago finantza egoerak.

'Komunikazioa, ezinbestekoa familia-enpresarentzat' topaketa / 2019-5-23



Oinordetzaren eta langintzarenjardun aldia / 2019-3-5




2019ko FE Zikloa - 'Gobernu ona FE' / 2019-3-5



Bestalde, Bilbon egin zen abenduaren 4an **Famili Enpresen Erakundearen XII. Urteroko Topaketa**, ardatz harturik ehun urte baino gehiago dituzten famili enpresen esperientziak; hala, hizpide hartu zituzten familia enpresari horien giltzarri eta sekretuak, horrela azaltzeko nola irauten duten negozioek hainbeste urtez.




Famili Enpresen Erakundearen XII. urteko topaketa / 2019-12-4






Juan March - Familia Enpresaren Foroa / 2019-12-4

'Familia enpresaren profesionalizazioa' topaketa / 2019-9-19



## EMAITZA NAGUSIAK

Aipatzekoa da 2019ko abenduaren 3an aurkeztu zirela Famili Enpresaren Erakundeak (Eusko Ganberak), UPV/EHU-ko Famili Enpresaren Katedrarekin batera, Euskal Autonomi Erkidegoko 504 famili enpresari eginiko azterlanaren emaitzak. Lan horrek **Euskadiko famili enpresen erradiografia** egiten du, xeheki aztertuz euren osagai demografiko garrantzitsuenak, indarguneak eta ahuluneak, eta baita ere datozen urteei begira dituzten erronkak, Europako ekonomia garatuenekin alderatuta.

Rodrigo Basco, 'Euskadiko Famili Enpresen erradiografia' aurkezpena / 2019-12-33







'Euskadiko Famili Enpresen erradiografia' aurkezpena / 2019-12-3

## 1 / Euskadiko famili enpresen demografia

EAEko famili enpresen tamaina Europako famili enpresena baino txikiagoa da. Euskal enpresen fakturazioaren % 75a ez da iristen bost milioi eurora; Europaren kasuan, % 60koa da portzentaje hori. Europako famili enpresen % 40k 50 langile baino gehiago dituzte; Euskadin, berriz, % 12 dira langile kopuru hori dutenak.




## 2 / Jabetzaren egitura

Euskadiko famili enpresek oso kontzentratua dute jabetza, izan ere, jabetzaren % 91 familiarena da soilik. Halaber, akziodun kopuru txikia dute, eta gehienak familiako kideak izaten dira. Europako famili enpresen jabetza-portzentajea EAEkoa baino bederatzi puntu txikiagoa da.




## 3 / Zuzendaritza nagusia

Euskadiko famili enpresetako zuzendari nagusiak gehienetan familiaren bigarren belaunaldiko gizonak dira, adinez heldu samarrak, unibertsitateko ikasketadunak eta karguan esperientzia zabala dutenak. Enpresen % 24k bakarrik dituzte emakumeak euren zuzendaritza-karguetan. Portzentaje hori Europako famili enpresena baino sei puntu handiagoa da.



## 4 / Enpresako gobernu egiturak

Euskadiko famili enpresen % 45ek administrazio-kontseilu bat dute (Europan portzentaje hori % 38koa da) eta hori aurrerapauso handia da konpainiaren profesionalizazioan. Gobernu organo hori baduten famili enpresen kasuan, hurrengo erronka da aniztasuna areagotzea kontseilu horren osaeran.




## 5 / Famili enpresako gobernu instrumentuak

EAEko famili enpresak kontzientziatuta daude, badakite garrantzitsua dela akordio edo protokolo familiarrak izatea. Hori dela eta, halako protokoloen ezarpena Europako gainerako eskualdeen maila berean dago (% 35ek badute protokolo familiar bat). Hala ere, kezkagarria da ikustea % 77k ez daukala asmorik familia, jabetza eta enpresaren arteko harremanak erregulatuko dituen akordio adostu bat ezartzeko.




## 6 / Ondorengotzaren plangintza

Nahiz eta ondorengotza den famili enpresaren biziraupenerako elementu kritikoena, soilik enpresen % 35ek planifikatu dute euren ondorengotza, eta ondorengoa aukeratuta daukaten enpresen artean, soilik kasuen % 31k aukeratu dute emakume bat, enpresaburuaren familiako kide dena eta lidergoa hartuko duena.




## 7 / Familiaren inplikazioa enpresan

Familia eta enpresa lotzen dituzten lotura afektiboak dira Euskadiko famili enpresen izaera definitzen duten elementu garrantzitsuenak; Europako famili enpresetan baino garrantzi handiagoa dute Euskadiren kasuan, eta familiak enpresaren kapitalean duen partaidetza baino garrantzitsuagoak dira.

## 8 / Emakumea famili enpresetan

Euskadiko famili enpresen administrazio kontseiluetan eta zuzendaritza nagusietan dauden emakumeen kopurua Europako enpresen maila berean dago. % 59k uste dute emakumeek erraztasun gehiago dauzkatela familia enpresetan euren ibilbide profesionala garatzeko. Gainera, % 80k diote enpresaburuaren familiako kide izateak, erantzukizun handiagoa ematen duen arren, aukera gehiago ere ematen dizkiela euren garapen profesionalerako. Funtsean, famili enpresa ingurune konprometituagoa da emakumea zuzendaritza-lanetan eta famili enpresaren gobernuko zereginetan sartzeko.

Euskadi

%59 GARAPEN PROFESIONALA

%80 EMAKUMEAK ADMINISTRAZIO KONTSEILUETAN ETA GOI ZUZENDARITZAN

## 9 / Ekintzaileak

Famili enpresa sortu zuten pertsonak ekintzaile izan dira eta dira. Inkestek erakusten dute, egungoa bezala etengabe aldatzen den ingurune batean, funtsezkoa dela osagai hauek izatea enpresa arrakastatsua izango bada: arriskuarekiko jarrera egokia, hau da, gai izatea ziurgabetasuna onartu eta kudeatzeko (% 39); jarrera proaktiboa, aitzindari izateko teknologia, teknika, prozesu, produktu edo zerbitzu berrien garapenean (% 38); jarrera berritzailea, sinetsiz ikerketa eta garapena direla etorkizuneko aurrerapenaren iturria (% 49). Maila horiek Europako famili enpresen portzentajeetatik hurbil daude.

Euskadi

%39 JARRERA BERRITZAILEA

%38 ZIURGABETASUNA ONARTZEA ETA ERABILTZEA

%49 TEKOLOGIA, TEKNIKA, PRODUKTU EDO ZERBITZU BERRIAK

## 10 / Eraldaketa digitala

Euskadiko famili enpresen % 55 digitalizazio prozesuetan murgilduta daude, eta % 30ek aurreikusita dute eraldaketa digitalean inbertitzea datozen bi urteetan. Halere, enpresa askok oraindik ez dute sartu digitalizazioa euren lehentasunen artean. Ez dute uste eraldatzea beharrezkoa denik aro digitalean lehiakor izaten jarraitzeko.

Euskadi

%55 DIGITALIZAZIO PROZESUAN SARTUTA DAGO

%30 ERALDAKETA DIGITALEAN INBERTITZEA

# Etorkizuneko erronkak

Famili enpresek bizirik jarraituko badute, oreka egokia aurkitu behar dute enpresako eta familiako helburuen artean.



**Familiari dagokionez,** hauek dira erronka garrantzitsuenak: familia-enpresa harremana gehiago profesionalizatzea, kanal eta tresna egokiak ezarriz komunikazioa hobetzeko, familiaren ondarea gordetzeko eta enpresaren eta familiaren interesak bateratzeko zein bereizteko.

**Enpresari dagokionez**, lehentasunak dira talentua erakarri eta atxikitzea, eta digitalizazio, robotizazio eta eraldaketa teknologikoko prozesuak hastea enpresaren lehiakortasuna eta sostengarritasuna mantentzeko etengabe aldatzen ari diren ingurune ekonomikoan eta merkatuan.

# Turismoa / Ardoaren Hiriburu Handian Munduko Sarea - Bilbo/Errioxa

Best Of
Wine Tourism
GREAT WINE CAPITALS
THE AWARDS OF EXCELLENCE
REGIONAL WINNER 2020

Great Wine Capitals Global Network – Ardoaren Hiriburu Handien Munduko Sareak banatu ditu **Bilbo-Errioxako Best Of WineTourism 2020ko sariak**. Sariketa hori Baigorri Upategian egin zen, Samaniegon (Arabar Errioxa), 2019ko urriaren 24an. Hauek izan ziren XVII. edizioko sarituak: Valdemar Upategia eta Villa Lucía Ardoaren Museoa, ex aequo saria enoturismo inklusiboko zerbitzuengatik; eta, bestalde, Murua Upategia eta Juan Carlos Sancha Upategia.

Epaimahaiak "Aipamen Berezi"arekin nabarmendu zuen David Morenoren (Baldarán, Errioxa) ekimen eta ahalegin pertsonala eta ekoturismoko proiektuetan duen esperientzia luzea.

Gainera, Bilbo-Errioxa Batzordeak aitortza egin zion Haro herriari, bertako biztanle eta enpresek eta Udalak "Europako Ardoaren 2020ko Hiriburu" izateko egin duten elkarlanagatik.

Testuinguru honetan, Oiongo Valdemar Upategiak eta Biasteriko Villa Lucía espazio enogastronomiko eta Ardoaren Museoak **Best Of Wine Tourism Internacional 2020** saria jaso zuten Bordelen, Ardoaren Hiriburu Handien Munduko Sarea (GWC) sortu zeneko hogeigarren urteurrena ospatzeko ekitaldian. Arabako bi enpresa horiek aitortza jaso zuten turismo inklusiboa bultzatzeagatik, zeinari esker pertsona guztiek bisitatu baititzakete upategiak eta museoak, ikusmen, entzumen edo mugikortasun hesirik gabe.

Best Of 2020 / 2019-10-24






## People's Choice Award

Ardoaren Hiriburu Handien Munduko Sareko Bilbo-Errioxa Batzordeak Espainiako bi enpresa (Murua upategiak eta Villa Lucía) sartu ditu Nazioarteko Best Of People's Choice Sarietarako bozka gehien jaso dituzten bost ekimenen artean.

Gainera, Bilbo-Errioxa bigarrena izan zen munduko enoturista afizionatuek Ardoaren Hiriburu izateko gehien bozkatu dituzten zonaldeen artean. Porto (Portugal) gelditu zen lehen postuan.

## Bilbo-Errioxa Pasaporte Turistikoa

Dokumentu hau 2019an jarri zen martxan bisita turistikoak sustatzeko; hala, sariak zozketatzen dira Best Of sariek azken urteetan nabarmendutako gutxienez bost enoturismo-proiektu bisitatu izana egiaztatzen duten pertsonen artean.

## GWCren XX. urteurrena

Great Wine Capitals Global Network | Ardoaren Hiriburu Handien Munduko Sareak Bordelen egin zuen bere **Urteko Batzar Orokorra**, 2019ko azaroan, bere 20. urteurrenarekin batera. Bilbo-Errioxa Batzordeak teknikariz eta enpresaz osatutako ordezkaritza zabal bat bidali zuen, Juan Mari Sáenz de Buruaga presidentea buru zutela.

1999an sortua, mundu mailako Great Wine Capitals sarea nazioarteko ospea duten eta mahastigintzan eta ardogintzan aritzen diren hamar eskualdek osatzen dute: Adelaida, Australia hegoaldean; Bordele, Frantzian; Lausanne | Suitzan; Maguncia | Rheinhessen, Alemanian; Mendoza, Argentinan; Porto, Portugalen; Bilbo | Errioxa, Espainian; San Francisco | Napa Bailara, Estatu Batuetan; Valparaíso | Casablanca Bailara, Txilen; eta Verona, Italian.




Midterm Meeting, Porton - GWC Sarea / 2019-6-15




Bilbo-Errioxa, GWC Batzar Nagusia, Bordelen / 2019-11-5





# Merkataritza, Ostalaritza, Irudi Pertsonala, Turismoa

Eusko Jaurlaritzaren, Udalaren, Merkataritza Ganberaren eta Bilbao Dendak elkartearen artean sinatu eta 2019ko maiatzean berritutako **“Bilboko hiri merkataritza-espazioetako gerenteak”** programa gauzatzeko lankidetza-hitzarmenaren esparruan (zeinaren Idazkaritza Ganbera honen ardura baita), hainbat jarraipen-batzorde egin ziren otsailean eta uztailean. Gainera, Ganbera Bilbao Dendak elkarteko kide da, eta elkarte horretako Zuzendaritza Batzordean, Batzarrean eta Lan-batzordeetan parte hartzen du.

Ganberak **Kontsumorako Aholkularitza Batzordean eta Euskadiko Merkataritzaren Aholkularitza Batzordean** (biak Eusko Jaurlaritzak antolatuak) ere parte hartzen du. Eta baita ere Bilboko Udalak sortutako **Merkataritza eta Ostalaritzako Lantaldean.**

Era berean, Ganbera **Bilbao Bizkaia Action Group** taldeko kide da, zeina Bizkaiko Foru Aldundiaren Ekonomi Sustapen Sailari atxikitako erakunde bat baita, Bizkaiko Turismoa sustatzea helburu duena. Bilboko Udalaren menpeko **Bilbao Convention Bureau** erakundeak ere parte hartzen du talde horretan.

2019an, Eusko Ganberek eta Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak elkarrekin egindako ekintzen artean, aipatzekoa da **Euskal Merkataritzaren XXI.** Topaketa, ekainaren 6an Bilbon egin zena “Eraldaketa digitala, giltzarria zure saltokiarentzat” lelopean. Testuinguru berean, prestakuntza praktikoko 16 tailer antolatu ziren Bilbon eta Bizkaiko hainbat herritan.



Euskal Merkataritzaren XXI. Topaketa / 2019-6-6

Euskal Merkataritzaren XXI. Topaketa / 2019-6-6









'Magia komertziala. Nola sortu gure salmentak handitzeko ideak' topaketa / 2019-12-18



'Bezeroari arreta ematak aro digitalean duen garrantzia' jardunaldia / 2019-12-12

## Sustapen Sektoriala

Bestalde, Eusko Ganberen barruan, Cámarabilbao-k Eusko Jaurlaritzaren **2019ko Euskal Merkataritzako eta Turismoko Sarien** kudeaketan eta zabalkundean parte hartu zuen, eta epaimahaiko kide ere izan zen.

Irudi Pertsonaleko sektorean, aurrera jarraitu dugu Bizkaiko ile-apainketako edota estetikako profesionalen kolektiboari eta zerbitzu horien erabiltzaileei **Bizkaiko Irudi Pertsonaleko Arau Profesionalaren** berri ematen eta arau hori ezartzen. Lan horretarako, Foru Aldundiaren eta BIPE, IPB sektoreko ordezkaritza elkarteen laguntza jaso genuen. Zehazki, ekintza hauek egin ziren:

Arau honen araberako ziurtagiria jaso duten enpresak baloratzeko eta sustatzeko VII. Topaketa (urriak 21)

Sektoreko profesionalen Arau Profesionala hedatzeko bi jardunaldi Balmasedan (iraila) eta Santurtzin (urria)

Bizkaiko hamalau ile-apainketa eta estetika establezimenduk ziurtagiriak jaso zituzten (maiatzak 6). Araua presente dago Zornotzan, Arrigorriagan, Astrabudua-Erandion, Barakaldon, Basaurin, Bilbon, Derion, Durangon, Ermuan, Galdakaon, Gernika-Lumon, Getxon, Igorren, Leioan, Lekeition, Lemoan, Mungian, Portugaleten, Sestaon, Sondikan eta Urdulizen.

Irudi Pertsonaleko Arau Profesionalaren ziurtagiriak ematea / 2019-5-6









Irudi Pertsonaleko Arau Profesionalaren bidez ziurtatutako enpresen VII. Topaketa / 2019-9-21

# Komunikazioa

Komunikazioak informazio-iturri gisa jarduten du, eta erabakiak hartzen eta erakundea gizarteratzen laguntzen du. Horrela beraz, hedabideekin eta erakundeekin dauzkagun harremanak beharrezkoak eta funtsezkoak dira Ganberaren estrategian. Gainera, aukera paregabea dira markari indarra emateko eta gure jarduerak ezagutzera emateko.

# Barne komunikazioa




Familia Enpresen Foroaren Topaketa, Bilbon / 2019-12-4






Bilboko Ganberako presidentearekin elkarrizketa Herri Irratian / 2019-10-24



Bizkaiko egoera eta enpresa perspektibak 2019-2020 / 2019-7-17



# Ekitaldi korporatiboak

**87** | **5.349**
parte-hartzaile

Bilboko kontsul berrien aldarrikapena / 2019-6-21



BEC-eko 15. urteurrena / 2019-10-1





# Prentsa Kabinetea

prentsa-oharretan

**3.579**

bisita webeko

**67** Prentsa-oharrak

**3** Iritzi-artikuluak

**110** Informazio eskaerak

Prentsaurrekoak **8**

Elkarrizketak **30**

Albiste-txostenak **841**

Ganberako Ostiralak - Alba Urresola,
LEAko presidentea / 2019-11-29




Ganberako Ostiralak - Ignacio Etxebarria,
EPSV-ko presidentea / 2019-9-27



## 2019ko Bizkaiko Erakusleiho Lehiaketa

Lehiaketari buruzko webguneak 1.034 bisita erregistratu zituen 2019ko azaroaren 1etik 2020ko urtarrilaren 31ra. Bestalde, lehiaketaren XXXVI. edizioari buruzko prentsaurrekoek 239 bisita izan zituzten urtarrilera arte. Sare sozialetan. Twitter: 8 txio, 5 BT, 52 “Atsegin dut” eta 4.728 bisita. Facebook: 4 argitalpen, 340 “Elkarreragin – Atsegin dut” eta edukia ikusi duten 1.905 pertsona






Bizkaiko Erakusleihoen Lehiaketaren Lehen Saria, Zallako 'Mascotas' / 2020-1-8




XXXVI. Bizkaiko Erakusleihoen Lehiaketaren Sariak / 2020-1-8



# Azterlan Ekonomikoak

2019an Merkataritza Ganberako **Azterlan Ekonomikoen Zerbitzuak** Bizkaiko egoera ekonomikoari buruzko txostenak egin ditu. Txosten horietako datuen bidez posible dugu adierazleak egitea, egoera aztertzea eta informazio eguneratua eskuratzea ekonomia orokorraren bilakaerari buruz edota Bizkaiko aldagai garrantzitsuenei buruz, eta baita ere nazioarteko, Espainiako zein Euskadiko eta, bereziki, Bizkaiko jarduera ekonomikoaren testuinguruari buruz.

INDUSTRI ABAGUNEAREN INKESTA

- 6 inkestaldi
- 4.320 industria inkestatu
- 6 txosten

MERKATARITZA ABAGUNEAREN INKESTA

- 6 inkestaldi
- 900 saltoki inkestatu
- 6 txosten

BIZKAIKO ENPRESEN EGOERA EKONOMIKOARI BURUZKO INKESTA. 2019KO LEHEN SEIHILEKOA.

- 5.000 Sektore guztietako 5.000 enpresa inkestatu

EUROPAKO AZTERLAN EKONOMIKOA. BIZKAIKO 2019-2020KO PERSPEKTIBEN INKESTA

- 3.500 Sektore guztietako 3.500 enpresa inkestatu

HORTIK – BIZKAIKO KANPO-MERKATARITZA 2018

BERRIKUNTZA BIZKAIKO ENPRESA ESPORTATZAILEETAN 2019

**521**
enpresa esportatzaile inkestatu

BERRIKUNTZA BIZKAIKO FAMILI ENPRESAN 2019

**951**
famili enpresa kontsultatu

BIZKAIKO ENPRESEN PRESTAKUNTZA ETA KONTRATAZIO PREMIEI BURUZKO AZTERLANA

**91**
enpresa inkestatu

BIZKAIKO EKONOMIARI BURUZKO 2019. URTEKO LEHEN SEIHILEKOKO AZTERKETA ETA 2020RAKO PERSPEKTIBAK

BIZKAIKO EKONOMIARI BURUZKO 2019. URTEKO AZTERKETA ETA 2020RAKO PERSPEKTIBAK

# ERRADIOGRAFIA EKONOMIKOA BIZKAIA 2019

# 09.



## BPG-aren urtetik urterako hazkunde tasa




ZUZENDUTAKOA,
ONDOREETARAKO SASOIKOAK
ETA EGUTEGIA

## Industriaren salmentak




## Merkataritzako salmentak



## Etxebizitzaren salmenta Bizkaian




## Enpresa-dinamismoa



# Langabezi tasa




# Kanpo merkataritza



## Bidaiari trafikoaren eboluzioa Bilbo-Loiuko aeroportuan




## Bidaiarien etorrera

**GUZTIZA**

2018ko URTARRILA-ABENDUA
1.463.341

+ 54.750
+%3,7

2019ko URTARRILA-ABENDUA
1.518.091

**NAZIONAL**

2018ko URTARRILA-ABENDUA
865.589

+ 23.333
+%2,7

2019ko URTARRILA-ABENDUA
888.922

**KANPOKO BIDAIARIAK**

2018ko URTARRILA-ABENDUA
597.752

+ 31.417
+%5,2

2019ko URTARRILA-ABENDUA
629.169

# Merkatugaien trafikoaren eboluzioa Bilboko Portuan





CÁMARABILBAO

Alameda Rekalde 50 - 48008 Bilbao
Tel. 94 470 65 00
www.camarabilbao.com

Euskadi 2006
AENOR Empresa Registrada ER-1306/2/01
IQNet Certified Quality System